

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

San Severinoren agiria

**U**rte Berriarekin eta txotx gozoari aurrea hartuta heldu zen komunikatua, agiria. Mukuru beterik zegoen Negarraldeko sagardotegia. Urteko lehen zukua dastatzeko pronto, han ziren denak: gotzain dotoreak eta haien mirabe legoak, arotz esku trebeak eta kantari besomotzak, baserrietako osaba aberatsak eta iloba ogi-pekoak, ezkonduak, enamoratuak, herriko nagusiak, militarrek... bai eta larru-mota guztietako erosleak eta sal-tzaileak ere.

Urte Berriarekin, azkenean, mahai gainean zegoen herritar denek urte luzetan igurikatutako dokumentua: San Severinoren Agiria.

“Hau da sagardo berria” esateko pronto zeuden guztiak, jarioaren espe-roan, godalet eta txoletak bete-hustu guran. Baina, Sainduaren hitzei aiduru, kateaturik geratu zen kupelean sagar-ura.

**AGIRIA.** Viena eta Bavieratik heldua zen Saindua, Gabonetako gnomo, azti eta laminek deiturik. Austrian eta Ale-manian, hamaika monasterio fundatu eta eraikita zetorren. Besapean zekarren agi-ria, entzun gura zuen orori irakurtzeko.

Bere tunika higatuaren beheak jaso eta kupela handira igo zen. Arnasari eutsi zion orduan alkateak. Hazka egin zuen meza-mutilak galtzarbean. Eskuak igurtzi ijitoak.

San Severinok bi dohain zeuzkan: pro-feziaren grazia eta aholkuaren bertutea. Ezagunak ziren Kristandade guztian Ataulfo eta Sigeriko errege godoei nahiz Danubioko nekazariei egindako iruzkinak, izozteak leuntzeko eta uztak hobetzeko.

Dokumentua irakurtzeari ekin zion bere jatorriko hizkera-doinu markatua-rekin; ezkutuan gordeta bazeukan ere jaiotetxea zein zuen, ondo asko igartzten zitzaion erromatarra zela. Honetara zioen agiria:

“Bizia duen orok gorets eta lauda deza-



INIGO AZKONA

la Jainkoa. Ontasun maximoaren bedein-kapena gura baduzue, jagon eta zain itza-zue besteen eskubideak. Eta lagundu behartsuei”.

**BAI, BAINA.** Soka luzea ekarri zuten Sain-duaren esaldi laburrek. Diskurtso bildua izan arren, platika hura besterik ez zebilen jendearen ahotan.

Aintzakotzat hartu zituzten batzuek kupelaren gainetik esandako guztiak. Taxugabeko eta desegokitzen jo zituz-ten beste askok erromatarraren juz-guak: batzuek den-denak, hainbatek zenbait.

–Ez diat ulertzen trapu zahar horie-kin nola jantzita etorri den– lagun batek besteari.

–Niri, aldiz, haren hizketa-doinua egin zaidak arraroa.

Eztabaidari ekin zioten batzuek eta besteek. “Baina, ez al du esan ‘gorets eta lauda’? Zer gehiago esan behar zuen, ba?” zioen begi urdineko neska-txa batek. “Bai, baina esan izan balu ‘ohoratu eta goraldu’, argiago izango zen dena”, haren bikoteak.

– Eta, zer diostan ‘besteen eskubideak’ aipatzeaz? Nortzuk dira ‘beste’ horiek?– dendari batek.

– Ez zakinat; halere, ‘beste’ horien bai-tan, ez al gara denak kabituko?– haren bezero ohikoena.

Gotzainak, legoak, arotzak, kantariak, ezkonduak, enamoratuak, herriko nagu-siak, militarrek... denak abiatu ziren agiria-ren interpretazio zurrunetara. Hala eska-tzen zuen okasioak, noski.

Testua eta kontestua analizatu zuten. Sainduaren hitz egiteko modua eta tonua. Hitzaldirako erabili zuen kupelaren zura. Eztabaida handia ekarri zuen haren tuni-karen behe higatu eta urratuak.

Gogoeten ekaitza hartan, sermoi harta-tik denek ahaztuta zuten kontu batekin azaldu zen Negarraldeko etxeoandrea: “Hori guztia ondo dago; baina, ez al du agindu behartsuak laguntzea?”. Txotxa kenduta, parrastada askatu zuen. ■

Testua eta kontestua analizatu

zuten. Sainduaren hitz egiteko

modua eta tonua. Hitzaldirako

erabili zuen kupelaren zura.

Eztabaida handia ekarri zuen

haren tunikaren behe

higatu eta urratuak



irudia:  
Antton Olariaga